

Oarsoaldeak eskualde dinamiko, aktibo, lehiakor bihurtzearen alde borrokan dihardu. Ekonomiaren ikuspegitik, enplegu gehiago eta hobetoagoekin, modu iraunkorrean garatzeko gai izan nahi du, gizarte-kohesio handia lortzearekin batera.

**Sormena eta berrikuntza bultzatzen duten enpresen sorrera-espirtua** sustatzeko eskualdea, laburbilduz, enpresa-espirtua eragile nagusia dela onartuta, mentalitate ekintzailea sustatzen duen eskualdea izan nahi du.

**Oarsoaldea** Eskualdearen Garapenerako Agentziak ekitera animatu nahi zaitu. Hala, pertsona ekintzaileak hazkuntza eta lehiakortasunerantz bideratzen ditu. Xede horrez, finantzazio-baldintzak hobetzen saiatzen da eta enpresa txikiak eta ertainak sortu eta finkatzeko ingurune faboragarriagoa lortzearen alde lan egiten du.

Helburu hori lortu eta ekintzaileen lana zabaltzeko, Oarsoaldeak **12 negozio-idea** planteatzen dizkigu. Horiek espirtu ekintzailea bultzatu nahi dute eta, gainera, adimen ekintzaileekin, arriskuak hartzeko gogoak dituztenekin, garatea espero da. Laburbilduz, enpresa-mentalitate berritzailea izan behar dute. Hori da, hain zuzen ere, sail desberdinen bidez **Oarsoaldea**k lortu, orientatu, lagundu eta garatzen duena.

## OARSOALDEA: HEMEN NEGOZIOA DAGO

Hau proiektzioa duen eskualdea da, hemen espirtu ekintzailea dago eta **Oarsoaldea** erakundearen lan nagusia hori sustatea da. Xede horrez, hau da, **enpresa berrien sorrera bultzatzeko helburuz, 12 negozio-idea** aurkezten dira eta errealitate bihurtzeko baldintza bakarrarekin: mentalitate ekintzailea izatea.

Aurkeztutako ideia-dozena honetan batzuk oso berriak dira, hala nola "moddingaren" (ordenagailuak pertsonalizatzearen artea) establezimendua, teleidazkaria edo jarduera artistikoetan oinarritutako haurtzaindegia; kafe-antzerkia, catering-enpresa edo dokumentuak digitalizatzeko zerbitzua baztertu gabe. Horiek guztiek diagnostiko bera partekatzen dute: **bideragarritasuna**.

Izan ere, **Oarsoaldea** erakundeko lantaldeak eskualdean zenbait behar hauteman ditu eta ideia horiek aurrera ateratzeko bermea izan daitezke.

Ilido horri jarraiki, zonan garatzen ari diren proiektuekin (besteak beste, Zinealdea ikus-entzunezkoen poloa) zerikusia duten zenbait proposamen sartuak daude; beste batzuk, ordea, eraikitzen ari diren poligono berrietan kokatzeko pentsatuak daude. Azkenekoaren adibidea lirateke enpresa-zentroa eta haurrentzat bigarren eskuko artikuluak saldu eta erosteko lokala.

**Sormena** eta **berrikuntza** 12 proposamenen ardatz nagusiak dira eta beren helburua eskualdean **garapen iraunkorra** lortzea da, enplegu gehiago eta hobeagoekin. Laburbilduz, **creando futuro/geroa ereiten** leloari jarraiki, batetik, finantzazio-baldintzak hobetu nahi dira eta, bestetik, enpresa txikiak eta ertainak sortu eta finkatzeko ingurune faboragarriagoa lortu nahi da.

Gure lana enpresa-mentalitatea saritzea eta sail desberdinen bidez bide horretan orientatu eta laguntzea da. **Oarsoaldea** erakundeak **ideia jarri eta zuk zeuk errealitate bihurtzen duzu.**

## 12 negozio-ideia

- 1- **Art-Txiki.** Jarduera artistikoetan oinarritutako ludoteka/hautzaindegia. Industria-poligonoan kokatua. Zerbitzua urte guztian zehar eta ordutegi-malgutasuna.
- 2- **Kafe antzokia.** Taberna/kafea zuzeneko ikuskizunekin (musika, antzerkia, umorea). Industria-poligonoan kokatua.
- 3- **Zuk zeuk autoa.** Ibilgailuak mantendu eta konpontzeko tailerra.
- 4- **Janariak etxera.** Cateringa eta etxeko janariak enpresa eta partikularrentzat. Zerbitzua lokalean bertan, garraioa eta internet bidezko salmenta.

- 5- **Negoio-zentroa.** Lokalen alokairua gehi enpresentzat zerbitzuak. Berariaz ikus-entzunezkoen sektorerako.
- 6- **Enpresei dokumentuak digitalizatzea.** Jaso eta garraiatzeko aukera eskaintzen du.
- 7- **Tuneatu zure PCa.** Modding-enpresa, ordenagailuaren monitoreak, CPUak edo periferikoak pertsonalizatzeko teknika.
- 8- **Ekoizpen-enpresa.** Ikus-entzunezkoen zerbitzuak sortzea. Zona estrategikoa.
- 9- **Teleidazkaritza.** Telefonoz deiak administratu eta kudeatzeko zerbitzuak. Autonomo eta enpresa txiki eta ertainentzat.
- 10- **Umeentzat bigarren eskuko denda.** Umeentzat artikulu erdi berriak saldu eta erostea.
- 11- **Vendinga.** Janariekin, prentsarekin, liburuekin... makina automatikoak jarri eta mantentzea.
- 12- **Turismo-hartzailearen enpresa.** Turismo-zerbitzu bereiztuak: negozioa, abentura, kultura, etab.